

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostenari buruz”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin, **URGENTZIAZKO PROZEDURAZ**.

ZIOA

2009ko abenduaren 22an Eusko Legebiltzarreko Giza eskubideen batzordeak, aho batez, zera onartu zuen: “1) Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritzari eta Biktimen Arretarako Zuzendaritzari eskatzen die lanean jarrai dezatela, lehen pauso gisa 2008ko ekainean aurkeztu zen txostenarekin, alegia, Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostenarekin. Txosten horrek aztertu beharko ditu Euskadin azken hamarkadetan indarkeriak eragin dituen giza eskubideen urraketek eragindako sufrimendu bidegabea, gaur arte kontuan hartua izan ez dena. Horrela, biktima horiek aintzat hartzean ere egingo da aurrera. Aipatutako txostena Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordean aurkeztuko da, sei hilabete baino lehenago. 2- Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio aurkez dezala, egun berean, ordaintzarako lehenengo neurrien proposamena”.

Ekainean, Jaurlaritzatik jakinarazi zitzaigunez irailera arteko epea behar zuten txostena aurkezteko. Aldiz, atzerapena luzatzen joan da eta agindua onartu zenetik ia urtebete pasa da. Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari exijitzen dio, 2009ko abenduaren 22ko aginduari jarraituz, “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena” berehala aurkez dezala Eusko Legebiltzarrean.

URGENTZIAZKO PROZEDURAREN ZIOA

2009ko abenduaren 22an onartu zen Giza Eskubideen batzordean, aho batez, txostena sei hilabete baino lehenagoko epean Legebiltzarrera aurkeztea. Atzerapena, beraz, nabarmena da, inolako azalpenik eman gabe. Hori dela eta, ezinbesteko deritzogu urgentziaz aztertzea gaia.

Gasteizen, 2010eko urriaren 20an
Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea